Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELLCw2Nct

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

GETXO KIROLAK TEAK KUDEATZEN DUEN GOBELA KIROLDEGIKO KAFETEGI-JATETXEAN OSTALARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

A.- HELBURUA

Helburua da Gobelako kiroldegian dagoen kafetegi-taberna ustiatzea.

GOBELA kiroldegiko kafetegi-tabernaren instalazioa eraikinaren lehen solairuan dago, eta kiroldegiko zerbitzu zentraletatik nahiz kanpotik sar daiteke bertara.

Instalazioa ostalaritza-establezimendu bezala erabiltzearren, 2. taldeko jardueran sartzen da.

Instalazioaren xedeko higiezina bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketan islatzen da, eranskin moduan gehitutakoan.

B.- IRAUPENA

Kontratu honen hasierako iraupena gehienez ere BI (2) urtekoa izango da, zerbitzua hasteko akta sinatzen denetik aurrera. Urte BATEKO (1) lehen luzapena, urte BATEKO (1) bigarren luzapena eta hirugarren luzapen hori ez litzateke urtebetera iritsiko, gehieneko iraupen-data Fadurako kiroldegiko ostalaritza-zerbitzuaren kontratua amaitzeko gehieneko datarekin bat etortzea lortu nahi baita, hau da, 2027ko ekainaren 30era arte, hau da, aurreikusitako guztizko iraupena ez da 4 urte eta 4 hilabetetik gorakoa izango.

Enpresa esleipendunak instalazioa abian jarri eta zerbitzua eman beharko du 2 asteko epean, zerbitzua hasteko akta kontratuaren arduradunarekin eta kontratazioko langileekin batera egindako bileran sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

C.- KANONA ETA BALIO ESTIMATUA

Ekonomia- eta finantza-arloko bideragarritasun-azterketatik ateratako datuak (% 40ra murriztutako kanona, 2632 lizitazio-espedientean finkatutakoarekin alderatuta. Espediente hori hutsik geratu zen.)

- **Gobela kafetegi-taberna:** ustiatzeko guztira 125m2-ko instalazioa:

  KAFETEGI-TABERNA (SOLAIRU BAKARRA):

  1,5 € m2: 2.250 €/urteko, BEZa sartu gabe

  187,50 euro/hilabete, BEZik gabe

Urteko Taberna-kafetegiko KANONA:

2.722,50 euro/urte (%21 BEZa barne)
226,87 euro/hilabete (%21 BEZa barne).

Sinatua: Firmado: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Sinatua: Firmado: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Lotearen balio zenbatetsia: 2.250 €*2 urte= 4.500 €, gehi 945 € % 21 BEZa, hots, 5.445 € (%21eko BEZa barne).

Kanona, oro har, emakidadunak ordainduko du urteko aurrerapenekin, eta dagokion zenbatekoa GETXO KIROLAKEN Diruzaintzan sartuko du. Ordainketa egiteko beste denborazkotasun bat ere eska dezake esleipendunak: hilero, hiru hiletik behin, eta hasierako aktan ezarriko da.

KONTRATUAREN BATEZ BESTEKO BALIOA:

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioko azterlan bakoitzaren negozio-zifraren zenbateko garbia aplikatuz ateratzen den balio zenbatetsia honako hau da, lehen aipatutako murrizketarekin:

Gobela: 358.956€ (82.836 €* 4 urte eta 4 hilabete)

D.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

A.- FORMULAREN ARABERA KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (70,00 puntura bitarte)

Zerbitzuen kontratu honetan, esleitzeko irizpide bat baino gehiago aplika daitezke, SPKLko 145.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Modu horretan, kalitate-prezio onena lortzeko egokitzat honako hauek joko dira:

1) Lizitatzaileak m2-ko proposaturiko kanona, BEZ gabe: gehienez 70 puntu

Dagozkien puntuak honela banatuko dira:

- ***KANONA: 70PUNTU***

Aurkeztutako eskaintzak, gutxienez, lizitazioaren prezioa berdindu beharko du (gutxieneko kanona), eta, kasu horretan, eskaintzak 0 puntu jasoko ditu.

Lizitazio-oinarriaren azpiko eskaintzak (gutxieneko kanona) lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Gehienez 51 puntu izango ditu lizitazioan aurkeztutako diru-proposamen handienak, eta gainerakoak honela baloratuko dira:

$$X = \frac{\text{Aurkeztutako proposamena} \times 70}{\text{Aurkeztutako proposamen handiena}}$$

Izanik:

X = Aurkeztutako proposamenak lortutako puntuak

B.- BALIO-JUDIZIOEN ARABERA KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (30,00 puntura bitarte).

1. USTIAPEN ETA FUNTZIONAMENDU PLANA: 30 PUNTU

A) Ustiapenaren programa, zeinetan adieraziko diren eman beharreko zerbitzuen antolamenduaren urteko planifikazio orokorra; funtzionamendurako proposamena, talde

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

pertsonala zeinekin adieraziko den ustiapena egingo dutenen esperientzia eta prestakuntza. Gehienez 7,5 puntu (% 25)

B) Irekitzeko eta ixteko urteko ordutegiak, garbiketa, kontserbazioa eta mantenua, zaintza eta segurtasun zerbitzuak, aseguru polizak eta bere zenbatekoak, ardurapeko pertsonala, etab. Gehienez 6 puntu (% 20)

C) Ematen den zerbitzuaren hornidura proiektua, zeinetan barne hartuko diren interesgarriak gerta litezkeen ustiapen baldintzetarako hobekuntzak, esaterako: Gehienez 16,5 puntu (% 55)

- Musika, literatura eta abarren kultura ekitaldiak ospatzeko aukera, lokalaren edukierako aforo mugatuarekin.
- Baloratuko dira menuen konposizioa, horien oreka dietetiko eta nutrizionala, elikagaien eta edarien manipulaziorako araudiaren doikuntza arduratsua, prestakuntzaren edukiak, etab.

D) Jendaurrean eskaintzeko zerbitzu-gida, aplikagarriak diren produktuen eta prezioen adierazpenarekin.

Enpresa lizitatzaileek, eskaintzak bideratzeko eta homogeneizatzeko irizpide modura, eskaintza teknikoaren dokumentazioa aurkeztuko dute idatzita Arial hizkiarekin, 10 tamainakoa eta 1,5 lerroartearekin, A-4 formatuan, PDF FORMATUAN, zenbakidunak izanik, 60 orriko kopurua gainditu gabe.

A-3 etzan zenbakiduna erabiliko da aurkeztu beharreko diagrametarako, eta aparteko eranskinak zeinetan barne hartuko diren enpresa aurkezteko memoria korporatiboak, proposatutako taldeko kide bakoitzaren curriculumak, enpresaren kalitate ziurtagiriak, edota adierazitako orrialdetan aipatzen den gainerako dokumentazioa. Ez da aztertuko edota baloratuko 60 orrialdeko zenbakitzetik haratago doan orririk.

Eranskinak ez dira kontuan hartzen balorazio xedeetarako eta soilik adierazitako dokumentazioa izango dute atxikita.

<u>Eskaintza teknikoko kalitatearen irizpideari dagozkion 30 puntuetatik gutxienez 15 puntu ez badira lortzen, automatikoki botako dira atzera eta ez dira proposamen ekonomikora pasako</u>

G.- KAUDIMENA

KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA:

Kalitate-prezioaren aldetik egokitzat jotzen da ondorengo kaudimen ekonomikoa:
Negozioen urteko bolumena edota kontratu honen esparruko negozioen urteko bolumena, azken hiru urteetako ekitaldi onenari dagokiona, eratzeko edo enpresaburuak jarduerak hasteko daten eta lizitazio-iragarkian eskatutako zenbateko bereko edo handiagoko eskaintzak aurkeztearen arabera. SPKLko 87.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki egiaztatuko du; hau da, "Enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa nahikoa dela dokumentu bidez egiaztatzeko, honako ziurtagiri eta dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: banku-ziurtagiria, arrisku profesionalen

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeetak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

gaineko aseguru-poliza edo –ziurtagiria, urteko kontuak eta enpresariaren adierazpena, enpresaren negozio-bolumen global eta guzti. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeak egiaztatuko ditu sektore publikoko kontratazio-organo guztien aurrean, bertan adierazitakoa kontuan hartuta eta kontrako frogarik ezean, enpresariaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren baldintzak".

Azken 3 ekitaldietan eta, bereziki, 2020an eta 2021ean ostalaritza-sektoreak bizi izan duen krisiaren ondorioz, ohiko diru-sarrerak baino askoz ere txikiagoak lortu dira, murrizketak direla eta. Hori dela eta, ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko irizpidea lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena izango da, eta amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, gutxienez ezarritako urteko kanonaren balioa, behin eta erdi, hau da, 3.375 € (BEZik gabe).

KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA:

Zerbitzuen kontratuetan lizitatzaileek izan beharreko kaudimen tekniko edo profesionalaren gutxieneko baldintzei dagokienean (SPKLko 90. artikulua), ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna kontuan hartu beharko dira, eta hori egiaztatu beharko da kontratuaren helburuaren arabera".

Honako hau hautatu da:

- Azken bost urteetan emandako zerbitzu edo egindako lan nagusien zerrenda, kontratuaren xedearen berdinak edo antzekoak badira; bertan, zenbatekoa, eguna eta hartzaile publikoa edo pribatua adieraziko dira, eskumeneko organoak emandako edo bisatutako ziurtagirien bidez egiaztatuta hartzailea sektore publikoko erakundea denean, baina hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiriaren bidez edo, hori ezean, enpresaburuaren adierazpenaren bidez, haren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten agiriekin batera.

- Gutxienez bi pertsona kontratatu beharko dira, eta horiek gutxienez euskara jakin beharko dute bezeroekin euskaraz erlazionatu ahal izateko moduan (1HEren maila baliokidea edo lehen mailako ikasketak euskaraz).

2020ko eta 2021eko ekitaldietan pandemiak sektorean eragindako murrizketak kontuan hartuta, eta lehia-maila egokia bermatzeko, kontuan hartu dira dagozkion zerbitzuen probak, 5 urte lehenagora arte egindakoak, eta ez 3 urte lehenago eta urteko 2.250 € egiaztatuko ditu.

Kontratista enpresa sortu berria denean, SPKLko 90.4 artikuluan ezarritakoa beteko du.

H.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak jartzeko aukera dago, betiere kontratuaren helburuarekin lotuta baldin badaude, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira eta Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak izanez gero.

SPKLko 202.2 artikuluaren arabera, kontratua gauzatzeko baldintza bereziei dagokienean, ondorengo baldintzak hartzea proposatu da:

- Zerbitzua gauzatzeko fasea, tokiko ekonomiaren aldeko neurri ekonomikoak, tokiko merkataritza sustatzearekin lotura zuzena dutenak, tokiko merkataritzan enplegu osagarria

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

aktibatzeko erabiltzeko baldintzarekin, zuzeneko hornidurak erabilita, udalerriko denda eta hornitzaileei materialak erosita, zerbitzuak kontratatuta, tokiko ostalaritzan kontsumoak eginez, e.a., urtean 1.500,00 €-ren truke, BEZ barne, kontratuaren arduradunaren aurrean behar bezala justifikatzeko betebeharrarekin.

PENALIZAZIOA: justifikatu gabeko zenbatekoa fakturazioan edo fidantzan murriztuko da.

Horrez gain, kontratua gauzatzeko **ingurumen-arloko** baldintza bereziei dagokienean, **ondorengoak proposatzen dira:**

- Paperaren kontsumoa murrizteko, zerbitzu/proiektuan zehar sortutako dokumentu guztiak formatu elektronikoan emango dira, posta elektronikoaren bidez edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko esteka eta guzti).
- Azken dokumentuen edo kontratuen ale bat inprimatu beharko da gutxienez edo beste aleren bat kontratugileak berariaz eskatuz gero. %100 birziklatutako papera erabili beharko da. Soilik birziklatu gabeko papera erabili ahal izango da A4 edo A3 Din formatuan inprima ezin daitezkeen planoetarako edo merkatuan birziklatutako kalitateko paperik ez duten paper-motak erabiltzea eskatzen duten beste erabilera batzuetarako.
- Era guztietako dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan hizkuntza ez sexista erabiliko da, emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestuko da eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol edo –identitateen pluraltasunaren balioak dituen irudia sustatuko da.

Gauzatzeko aurrean aipaturiko baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratua suntsitu ahal izango da, SPKLn xedatutakoari kalterik egin gabe.

I-. KONTRATUAREN ARDURADUNA: BITARTEKARIA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, eta haren egitekoa izango da kontratua gauzatzen den gainbegiratzea eta erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak ematea, itundutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzearren. Kontratuaren arduradunak pertsona fisiko edo juridiko bat edo hainbat laguntzaile izan daitezke.

Kontratuaren arduraduna izendatzeak edo ez izendatzeak eta hark bere ahalmenak erabiltzeak edo ez erabiltzeak ez du kontratista salbuetsiko kontratuaren helburua behar bezala gauzatzetik, aldeak haren zuzeneko ordenari dagozkionean izan ezik.

Arduradunak eta haren laguntzaileek higiezinerako sarrera librea izango dute. Kontratistak, inolako kostu gehigarririk gabe, Administrazioari laguntza profesionala emango dio Administrazioak higiezinaren aprobetxamendurako beharrezkotzat ikusten dituen azalpeneko edo informazioa emateko bileretan. Era berean, beste Udal Arlo batzuek higiezina erabiltzean, arduradunarekin hitz egingo dira horren inguruko gaiak, eraikinean egiten diren zerbitzu ezberdinak koordinatze aldera. Enpresa esleipendunak, bestalde, bitartekari bat izendatu beharko du Udal-arloekin erlazionatzeko.

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

J.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

- **<u>Esleipendunaren betebehar partikularrak izango dira</u>**

-Aipatu eraikinaren barruan jatetxe-zerbitzu bat kudeatzea, garatzea, abian jartzea eta ustiatzea, aurreko atalean azaldutako erabileren arabera.

-Ibilgetuaren elementu guztiak, horien kopurua, ezaugarriak eta prezioak zehaztuta, Getxo Kirolakek zerrendan sartu eta inbentariatuko ditu administrazio-kontratazioa egiten den unean, eta zerrenda horren kopia bat gehituko zaio kontratu-dokumentuari.

Materiala ez du Getxo Kirolakek ez jarriko, ez mantenduko; hortaz, material horren bizitza erabilgarria amaitzen denean, Getxo Kirolakek kenduko du, eta esleipendunak eskuratutako ekipoek ordezkatu ahal izango dute.

-Esleipendunak jarritako ondasunak, salmenta automatikoko makinak kenduta, Getxo Kirolakek erosi ahal izango dizkio esleipendunari, BTP honetako klausulan adierazitako balorazio-formula honen arabera:

-GETXO KIROLAKI informazioa ematea indarrean dituen prezioen inguruan; prezio horietarako merkatuko prezioak hartuko dira erreferentzia gisa.

-Erabiltzailearen eskura izatea Erreklamazioen Liburua edo hori ordezkatzen duen agiria.

-Era horretako establezimenduen estaldura eta ordutegi propioak betetzeko konpromisoa hartzea eta betetzea.

-Kanona ordaintzea Plegu honetan adierazitako zenbatekoaren eta moduaren arabera.

-Hirugarrenei kalte-ordaina ematea kontratazioaren xedeko ondasunean herritarrei eskainitako zerbitzuaren erabilera edo ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioz sor daitezkeen kalteen truke, udal-eremuan erabakitako nahitaezko agindu bat betetzerakoan egin ez bada, behintzat.

-Kontratazioaren indarraldian eman beharreko jatetxe-zerbitzuari edo antzekoei atxikitako ondasunak ez besterentzea.

-Langileekin betetzea lan eta Gizarte Segurantzaren legediko xedapenak.

-Beharrezko langileak izatea jatetxe-kafetegi, sukalde eta ustiapenaren zerbitzu osagarrietarako.

-Oro har, lege- eta erregelamendu-arauak eta udal- eta/edo autonomia-organoek emakidaren xedearekin zerikusia duten eskumenak eta eskurantzak gauzatzean hartutako erabakiak betetzea.

-GETXO KIROLAKI ematea jabari publikoko ondasunekin eta instalazioekin zerikusia duten gorabeheren berri.

-Getxo Kirolakek egin beharko ditu, kontratuaren prezioa igotzeko eskubiderik gabe, finka erabiltzeko baldintza egokietan izateko beharrezkoak diren konponketa guztiak, konpondu

Getxo
Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

beharreko narriadura esleipendunari edo haren kargura dauden langileei egotzi dakiekeenean izan ezik.

Esleipendunak Getxo Kirolaki jakinarazi beharko dio, ahalik eta epe laburrenean, aurreko paragrafoan aipaturiko konponketak egiteko beharra dagoela; horretarako, Getxo Kirolakeko teknikariek zuzenean egiaztatu beharko dute finka zein egoeratan dagoen.

-Finkaren ohiko erabileratik datorren higadurak eskatzen dituen konponketa txikiak esleipendunaren kontura izango dira.

-Uraren eta hornidura elektronikoaren inguruko gastu arruntak Getxo Kirolaki fakturatuko zaizkio, eta erakundeak esleipendunari gastua hainbanatuko dio kontsumoaren arabera; era horretan, kontagailu bat izango da bi horniduretan, eta benetako kontsumoa ziurtatuko du.

-Enpresa esleipendunak gasaren eta telefonoaren hornidura ordaindu beharko du bere izenean.

-Zerbitzuaren funtzionamendurako egin beharreko gainerako mantentze-lanak esleipendunaren kontura egingo dira.

-Esleipendunak bere gain hartuko du kontratuaren xedeko espazioetan garatu beharreko jarduera eta erabilera estaltzeko aseguru nahikoa eta egokiak kontratatzeko betebeharra (edukitzailearen eta edukiaren asegurua) nahiz poliza horiek kontratuak irauten duen denbora osoan indarrean izateko betebeharra.

Edukitzailearen aseguruak udal-higiezinarentzat ezarritako balioa estaliko du gutxienez, eta aseguramendu-irizpidea berritze-balioa/berreraikitze-balioa izango da.

Esleipendunak polizen ale batzuk eman beharko dizkio Kontratazio Departamentuari, esleipenaren berri izan eta hurrengo 10 eguneko epearen barruan, eta horien ordainketaren ordainagiriak ere bai kobratu beharreko epe berean.

Era berean, erantzukizun zibileko asegurua sinatu beharko du, jarduera bera garatzearen ondorioz pertsonei edo gauzei eragindako kalteen arriskuak estaltzeko gutxienez. Getxo Kirolak aseguratu gehigarritzat hartuko da, baina horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

-Inola ere ezingo dira jaso horretarako prestatutako barrutietatik kanpo botilen kaxak eta bestelakoak, zakuak edo edozein motako paketeak, multzoari ikusmena kentzeaz gain, edozein motatako oztopoak izan daitezkeenak.

Beraz, gainerako pilaketa guztiak instalazioko biltegian eta hozkailuetan egin beharko dira, bakar bat ere agerian utzi gabe, ezta Kiroldegiaren alboko lursailetan ere.

-Esleipendunak menuak eta prezioak landu beharko ditu kirolarien menuak izan daitezkeenak, langileentzako prezio bereziak eta pintxo osasungarriak egiteko.

-Karta euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Beharrezkoa izanez gero, Udaleko euskara-zerbitzuaren laguntza izango dute.

-Esleipendunak bere kontura eskuratu beharko ditu kontratuaren xedeko lokalean kafetegi-jarduera garatzeko lizentziak eta baimenak.

Getxo
Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

- **Esleipendunaren eskubideak:**

a) Kontratazioaren xedeko ondasunen erabilera eta gozamena izatea (eraikin nagusia, osagarriak eta bertara sartzeko eremua) plegu honetan adierazitako helburuetarako eta ezarritako epearen barruan, esleipendunari emango zaion planoaren arabera.

b) Zerbitzuaren erabiltzaileen eskutik, adostutako prezioak jasotzeko eskubidea.

c) Ondasuna baldintza ezin hobeetan edukitzea, batez ere eraikineko edukitzaileari dagokionean.

K.- ITZULTZEA

Esleipendunak ustiapenerako sartutako instalazio, altzari, tresna eta elementu guztiak GETXO KIROLAK TEArenak izatera igaroko dira (ezarritako moduan erosita), eta zerbitzu publikoko ondasuna kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera ezin hobean itzuliko zaio; horretarako, amaitu aurreko data baino urtebete lehenago, GETXO KIROLAKek teknikari bat izendatuko du, baimenaren barruko instalazioak, altzariak eta materiala ondo kontserbatzen direla zaintzeko eta aurreikusitako baldintzetan izateko egin beharreko konponketen berri emateko.

L.- KONTSERBATZEA

Esleipendunak kontratazioaren xedeko eraikuntzak eta instalazioak egoera ezin hobean mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra izango du, eta, era horretan, garbiketaz, higieneaz eta laneko arriskuen prebentzioaz ez ezik, behar bezala mantentzeko beharrezkoak diren konponketak egiteaz ere arduratuko da, erabiltzeko baldintzetan egoteko eta baita estetikaren ikuspuntutik ere. Konponketak eta eraikuntza-ordezkapenak egin aurretik, esleipendunak dagokion proiektua aurrera eramateko Udalaren baimena izan beharko du.

Baimendua izango da ondasun publikoaren okupazioak nahiz bertan egiten diren jarduerek eragin ditzaketen kalte-galeren erantzulea, Administrazioak hark hartutako betebeharren edo hirugarren pertsonei edo gauzei eragindako kalte-galeren ardura izan gabe, horien aurrean administrazio-kontratazioaren titularrak erantzun beharko baitu.

M.- HUTSEGITEAK, ZIGORRAK ETA ZEHAPEN-PROZEDURA

Zerbitzua ematean edo baimendutako jabari publikoa erabiltzean esleipendunak egindako hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

SPKLn aurreikusitakoez gain, honako hauek ere izango dira:

Hutsegite arina:
1.- Esleipendunak bere betebeharrak ez betetzea barkatzeko moduko zabarkeriarengatik, edota Baldintza Plegu honetako arauak eta aplika daitezkeen lege- eta erregelamendu-xedapenak ez betetzea.
2.- Datuak ez ematea edo berandu entregatzea, GETXO KIROLAKEK eskatutakoan.

Hutsegite larriak:

Getxo
Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

1.- Jabari publikoko eta instalazioetako ondasunei kaltea edo galera eragiten dieten ekintzak edo omisioak.

2.- Kontratazioaren xedeko zerbitzu publikoko ondasunak beste helburu batzuetarako erabiltzea eta beste edozein irregulartasun larri izatea jabari publikoaren erabileran; esate baterako, kontratazioan sartzen ez diren zonetara zabaltzea udal-baimenik gabe.

3.- Pleguan eskatutako aseguru-polizak ez egitea edo hitzartutakoez bestelako baldintzetan sinatzea.

4.- Aseguru-polizen ordainagiriak ez ordaintzea mugaegunean.

5.- Bere ekimenez edo GETXO KIROLAK TEAk eskatuta emandako informazioa faltsutzea.

6.- Gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzea, kontratua suntsiarazteari kalterik egin gabe.

7.- Eskaerak ez artatzea edota hartzen diren ebazpenak ontzat ez hartzea.

8.- Harentzat lan egiten duten langileen lan-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak ez betetzea, ezta programatutako jarduerak garatzeko edozein Administrazio Publikok eska ditzakeenak ere.

Hutsegite oso larriak:

1.- Kontratazioaren helburua bere kabuz ez ustiatzea.

2.- Kanona Pleguan adierazitako denboraldi eta epeen barruan ez ordaintzea.

3.- Kontratazioaren xedeko eraikinak jatetxe, kafetegi-taberna, ospakizun-areto edo GETXO KIROLAKEK organo eskudunaren bidez berariaz baimendutako beste baterako ez diren beste erabilera batzuetarako partzialki erabiltzea.

Zehapenak hauek izango dira:
-Hutsegite arinek 1 eurotik 750 eurora bitarteko isuna izango dute.

-Hutsegite larriek 751 eurotik 1.500 eurora bitarteko isuna izango dute.

-Hutsegite oso larriek 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna izango dute.

N.- ORDUTEGIA

Funtzionamendu-ordutegia Gobela Kiroldegiaren irekiera-ordutegira egokituko da, eta inola ere ezingo dira gainditu emandako Jarduera-lizentziaren arabera hitzartutako ordutegiak.

Nahitaez bete beharreko ordutegia honako hau izango da:

- Astelehenetik ostiralera, 16: 30etik 21: 30era.
- Larunbatetan 8: 30etatik 20: 30etara
- Igande eta jaiegunetan 8: 30etik 15: 30era,

Getxo
Sinatua:
Firmado:
AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

* salbu eta Arenas seniorrak igande arratsaldean jokatzen badu; kasu horretan, partida hasi baino ordu erdi lehenago ireki beharko du eta partida amaitu eta ordu erdi geroago itxiko du.

Uztailean eta abuztuan "itxita egon ahal izango da,

* uztailaren bigarren hamabostaldian edozein diziplinatako txapelketa bat egiten den egunetan izan ezik; kasu horretan, partida hasi baino ordu erdi lehenago ireki beharko da eta partida amaitu eta ordu erdi geroago itxiko da.

Ñ- LANGILEAK

Esleipendunak langile-kopuru egokia kontratatu beharko du, dauden premiei erreparatuta, ostalaritza-ustiapena behar bezala artatzeko eta erabiltzaileei arreta handiena eskaintzeko. Gutxienez, bi pertsona kontratatu beharko ditu, eta horiek, gutxienez, euskara jakin beharko dute bezeroekin euskaraz erlazionatu ahal izateko moduan (1HEren baliokidea edo lehen mailako ikasketak euskaraz).

Era berean, esleipendunak arreta handiz zaindu beharko du establezimenduaren zerbitzura dauden pertsonen aurkezpena.
Bestalde, esleipendunak alta eman beharko die haren zerbitzura dauden langileei, gizarte-, lan- eta zerga-legerian eta aplika daitekeen beste edozeinetan ezarritakoaren arabera.

Halaber, negozioaren ustiapen pertsonalaren kasuan, esleipenduna behartuta egongo da jardueratik eratortzen diren lan- eta zerga-arloko lege-eskakizun guztiak betetzera.
Aurreko bi paragrafoetan jasotako alta-egoerak egiaztatzeko, Getxo Kirolaki aurkeztu beharko dio alderdi horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa. Urtearen hasiera aldera, Getxo Kirolaken aurkeztuko da kontratatutako langileen zerrenda, kontratu-mota eta indarrean den aseguruaren kopiarekin batera.

Ez Getxo Kirolakek, ez Getxoko Udalak, ez dute inolako harreman juridikorik edo lan-harremanik izango esleipendunaren langileekin, kontratua indarrean den bitartean, ezta kontratua amaitzean ere.

Esleipendunak pertsona bat izan beharko du futbol-zelaiaren eta haren tribunaren barrutirako sarbidea kontrolatzeko, kristalezko ontzirik eta edari alkoholdunik atera ez dezaten.

O.- KAFETEGIKO ONDASUNAK

Getxo Kirolakek esleipendunaren esku jartzen du lokala. Materiala esleipendunaren kontura izango da. Getxo Kirolakek ez du ordezkatuko edota mantenduko; beraz, materialaren bizitza erabilgarria amaitzean esleipendunak erretiratu beharko du.

Getxo Kirolakek soilik higiezina eta bertako edukitzailea jarriko ditu.

Esleipenduna arduratuko da su-itzalgailuak eta koadro elektrikoak instalatzeaz eta berrikusteaz, aire egokitua berrikusteaz eta lokala eta bainugelak garbitzeaz.

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan, lizitatzaileek material hori zein egoeratan aurkitzen den egiaztatu ahal izango dute, erabiltzeko moduan dagoen jakiteko, eta Getxo Kirolak ez da elementu horien erabilgarritasunaz eta kontserbazioaz arduratuko.

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-erosketak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

Ustiapenerako beharrezkoa den gainerako materiala esleipendunak erosi beharko du, erositako material horren inbentarioa egitearekin batera. Inbentario hori aldatzen den bakoitzean, Getxo Kirolaki jakinaraziko zaio.

Esleipendunak instalatutako ondasunak, salmenta automatikoko makinak kenduta, Getxo Kirolakek erosi ahal izango dizkio esleipendunari, aurrean zehaztutako balorazio-formula honen arabera:

- Hasierako balioa: ordainagiriaren faktura.
- Urteko balio-galera: hasierako balioaren %20.
- Hondar-balioa: hasierako balioaren %5.

Getxo Kirolakek eskubidea izango du esleipendunak erositako ondasunekin geratzeko eta erosteko, erosketa-prezioa ordainduta, urteko balio-galera deskontatu ondoren.

Erabat amortizatuta dauden eta erabilera-egoera onean aurkitzen diren ondasunak, Getxo Kirolaken iritziz, erosketa-eskubidea egikarituz gero, erosi zituen esleipendunari ordaindu ahal izango zaizkio hondar-balioaren prezio berdinaren truke, esleipendunak bere izaera edozein arrazoirengatik galtzen badu.

P.- INSTALAZIOEN EGOERA, MANTENTZE-LANAK ETA KONPONKETAK

7.1. Instalazioen egoera

Esleipendunak kontserbazio-egoera ezin hobean hartuko ditu instalazioak, eta konpromisoa hartuko du, kontratua amaitzean (amaitzeko arrazoia edozein dela ere), kontserbazio- eta banaketa-egoera berean itzultzeko. Horrez gain, aipatu lokalean kalteak edo narriadurak egonez gero, horien gaineko erantzukizuna hartu beharko du.

7.2. Konponketak

Getxo Kirolakek egin beharko ditu, kontratuaren prezioa igotzeko eskubiderik gabe, finka erabiltzeko baldintza egokietan izateko beharrezkoak diren konponketa guztiak, konpondu beharreko narriadura esleipendunari edo haren kargura dauden langileei egotzi dakiekeenean izan ezik.

Esleipendunak Getxo Kirolaki jakinarazi beharko dio, ahalik eta epe laburrenean, aurreko paragrafoan aipaturiko konponketak egiteko beharra dagoela; horretarako, Getxo Kirolakeko teknikariek zuzenean egiaztatu beharko dute finka zein egoeratan dagoen.

Finkaren ohiko erabileratik datorren higadurak eskatzen dituen konponketa txikiak esleipendunaren kontura izango dira.

7.3. Osasungarritasunaren eta higienearen gaineko baldintzak

Esleipendunak konpromisoa hartuko du lokalak garbitzeko eta egokitzeko beharrezko obrak egiteko, osasungarritasunaren eta higienearen aldetik behar bezalako baldintzetan aurki daitezen, Getxo Kirolakek emandako arauei erreparatuta.

Getxo
Sinatua:
Firmado:
AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct
A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.
Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

7.4. Garbiketa

Lokalak behar adina paperontzi eta langile izan beharko ditu paperak, janari-hondarrak edo bestelako zikinkeriak lurrera ez botatzeko, eta horiek guztiak egunero garbitu beharko dira lokalean, komunetan eta terrazan.

7.5. Zerbitzu sanitarioak

Esleipendunak bere kontura eta kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe arduratu beharko du garbiketaz, oinarrizko mantentze-lanez eta produktu kontsumigarriak (komuneko papera, xaboia, e.a.) ordezkatzeaz, eta zerbitzu sanitario publikoez ere bai; horrela, egoera higieniko ezin hobean kontserbatu beharko ditu, bereziki jende gehien biltzen den uneetan (kirol-lehiaketak) beharrezkoa den maiztasunarekin.

Mantentze-lanen kontzeptutik kanpo geratuko dira ondasun iraunkorrak eta egiturazkoak jartzeko zereginak, horien mantentze-lanak jabetzaren kontura izango baitira.

Q.- BILTEGIA

Inola ere ezingo dira jaso horretarako prestatutako barrutietatik kanpo botilen kaxak eta bestelakoak, zakuak edo edozein motako paketeak, multzoari ikusmena kentzeaz gain, edozein motatako oztopoak izan daitezkeenak.

Beraz, gainerako pilaketa guztiak instalazioko biltegian eta hozkailuetan egin beharko dira, bakar bat ere agerian utzi gabe, ezta Kiroldegiaren alboko lursailetan edo eraikinaren barruan ere.

R.- GETXO KIROLAKEN GIDALERROAK

Getxo Kirolakek ezarritako xedapen guztiak onartuko ditu esleipendunak, ustiapenaren funtzionamendu onenari eta egokienari dagokionean, eta, bereziki, barrutitik kanpo bertako artikuluak saltzeko eta kontsumitzeko berariazko eta erabateko debekua izango du; halaber, edari eta likore edo freskagarri eta bestelako elikagai-ontzien kapsulak eta tapoiak jaso beharko ditu.

S.- DEBEKUAK

- Adikzioen euskal legearen arabera, kirol-ekitaldietan ezin da alkohola saldu, eta tabakoa saltzea ere debekatuta dago. Debeku hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eta administrazio-espedientea irekitzea ekarriko du.
- Esleipendunak ez du Getxo Kirolaken aurretiazko baimenik gabe lizitazioaren xedeko barrutian jarriko inolako joko-makinarik, diskorik edo antzekorik.
- Kontratuaren xedeko ustiapena eta ostalaritza-establezimendua ezingo dira lagatu, eskualdatu, alokatu edota azpierrentan eman beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, Getxo Kirolaken aldez aurretiko baimenik gabe, eta hori egitea kontratua berehala suntsiarazteko arrazoia izango da, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
- Ezingo dira produktu lehor oskoldunak saldu, instalazioak zikindu ez daitezen.
- Ezingo dira kristalezko ontziko edariak saldu, tabernarako erreserbatutako espazioan kontsumitzen direnean izan ezik. Lehiaketako partidek irauten duten bitartean, debekatuta

egongo da kristalezko ontziak erabiltzea, eta, beraz, zerbitzu guztiak plastikozko edalontzietan emango dira.
- Esleipendunak menuak eta prezioak landu beharko ditu kirolarientzako menuak, langileentzako prezio bereziak, pintxo osasungarriak, e.a. egiteko.
- Karta euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo da. Behar izanez gero, Udaleko euskara-zerbitzuaren laguntza izango dute.

T.- KONTSERBAZIOA

Emakidadunaren kontura izango dira garbitze-, txukuntze- eta ondorengo kontserbazio-lanak nahiz tresneriaren edo altzarien gaineko kostuak. Horiek guztiak behar bezala erabiltzeko moduan egongo dira, eta, horrela, Getxo Kirolakek egokitzat jotzen dituen ikuskapen-bisitak egingo ditu, hark esandakoa nahitaez betebeharrekoa izanik.

U.- ONDASUNAK DESOKUPATZEA

Kontratua amaitzean, esleipendunak instalazioak desokupatu eta horiek kontserbazio- eta mantentze-egoera ezin hobean itzuli beharko ditu. Halaber, giltzak itzuli beharko dizkio Getxo Kirolaki.

Instalazioa bere borondatez uzten ez badu, esleipendunak onartuko du Getxo Kirolakek duen ahalmena bertatik botatzea adosteko eta egiteko, inolako ohartarazpenik egin beharrik gabe, adierazitako epea igarotzean, ondasunak instalazioaren eskura geratu ez direnean.

AZKEN XEDAPENA

Hirugarrenen aurreko erantzukizuna:

Emakidaduna zuzenean erantzule izango da hirugarrenen aurrean, zerbitzuaren ustiapenaren funtzionamendu normal edo ohiz kanpokoaren edo higiezinean eta hango instalazioetan garatutako jardueren ondorioz sortutako kalteen kasuan, ezinbesteko kasuetan izan ezik; beraz, Aseguru Konpainia batekin aseguru-poliza bat egitera behartuta egongo da, instalazioak eta bertako materiala arrisku orotan estaltzeko. Era berean, erantzukizun zibilaren asegurua izango du hirugarren langile edo erabiltzaileekiko, higiezinaren barnean aparkatuta dauden ibilgailuen sutearen bidezko kalteak ere sartuta.

Agiri Honek eskuz idatzitako sinadurik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri denegiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal (http://www.getxo.eus/Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

FAD/LCP/2022/790 DDELCw2Nct

Sinatua: AINOA ALONSO BASALDUA (langileria, kontratazio-eroskeiak eta juridiko arduraduna / Responsable de personal, compras-contratación y jurídico) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022
Firmado: GORKA ZABALA LASA (Kudeatzailea / Gerente) Data: 2022/11/02 Fecha: 02/11/2022